



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko apirilaren 21ean

31 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko mar-txoaren 4ko 2/1985 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Lege proposamena, alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzkoa. Osoko Bil-kurak aintzat hartua (3. or.).
- Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak aintzat har-tua (3. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Sustapen Ministerioraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena, hurrengo hau egiteko: “Iruñerriko trenbide-sare berriaren azterlan informatiboa: trenbideak egiten duen ingurua kendu eta gelto-ki intermodal berria”. Osoko Bilkurak baimena emanda (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mitch hurakanak sorturiko hondamendiak arintzeko GKE-ek prestatutako proiektuak balora ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin hitz egiten has dadin, autopis-tako bidesaria liberalizatzeari buruzko plan bat egiteko. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza finantzaketari buruzko laguntza eskaerei korritu nominalaren tasa txikiena aplikatu diezaien. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Kontrapasarako 584 ehiza postu baimentzeari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Talde-ak egina. Atzera bidalitako galdera (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea

Artikulu bakarra. Nafarroako Irrati-Telebista Espainiarreko Kontseilu Aholku-emailea sortu eta erregulatzeari buruzko martxoaren 4ko 2/1985 Foru Legeko zenbait artikulua, ondoren aipatzen direnak, horrela geratuko dira idatziak:

Bat. 2. artikulua. b) eta c) idazatien artean b) bis idazati berri bat erantsi da:

“b) bis - Irrati eta Telebistako Nafarroarako berariazko programazioaren parrilla jarraitu eta ebaluatzea; jarraipen eta ebaluazio horiek kasuan kasuko txostenetan adieraziko dira.”

Bi. 4. artikulua.

“1. Kontseilu Aholku-emailea gehienez ere hamaika kidek osatuko dute, Parlamentuko taldeek Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran dauzkaten eserlekuen proportzionaltasuna gordez. Parlamentuko talde guztiek kide bat izanen dute gutxienez. Nafarroako Gobernuak Lehenda-

kariak izendatuko ditu, Parlamentuko taldeek proposatuta.

2. Kontseilu Aholku-emailearen agintaldiak Nafarroako Parlamentuaren legegintzaldiak beste iraunen du. Legegintzaldia bukatzen denean, Kontseilu Aholku-emaileak jardunean jarraituko du bederatzi kide berriak beren karguez jabetu arte.

3. Kontseilu Aholku-emaileko kideek hauetako edozein kasutan utziko dute kargua:

- a) Haiek eskatuta.
- b) Bateriaezintasun kasuan.
- c) Heriotzagatik.

4. Hutsunerik geratzen bada Parlamentuko talde batek proposatutako kideen artean, hutsune hori Parlamentuko talde horrexek proposatuta beteko da kasuan kasuko legegintzaldia bukatu arte, betiere hutsunea deklaratu eta hilabeteko epean, gehienez ere.

5. Kontseilu Aholku-emaileko kide izatea bateraezina izanen da harreman zuzena edo zeharkakoa izatearekin publizitate-enpresekin, programa filmatuak edo magnetoskopioan erregistratutakoak edo irrati programak produzitzen dituzten enpresekin, diskoetxeekin edo RTVERi edo bere sozietateei materiala edo programak saldu edo haietaz hornitzen dizkion edozein entitaterekin. Bateraezina izanen da, halaber, RTVERekin lanharreman aktiboa izatearekin eta ente horri edozein zerbitzu egitearekin.

6. Kontseilukideen bateraezintasuna Nafarroako Parlamentuak aztertu eta deklaratu du.”

Hiru. 10. artikulua.

“1. Nafarroako Gobernuak Kontseilu Aholku-emailearen esku jarriko ditu haren helburuak betetzeko behar diren giza-baliabideak eta baliabide materialak. Kontseilu Aholku-emailearen funtzio-

namendu-gastuak ez dira finantziatuko RTVEren aurrekontuaren kargura, Nafarroako Aurrekontu Nagusien kargura baizik.

2. Giza-baliabideak ere Kontseiluaren esku jarriko dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio lanpostuen kargura.

3. Kontseilua behar diren baliabide materialez hornitzeko, Nafarroako gastuen aurrekontuan behar den kontusaila jarriko da; berariazko programa bat sortuko da.”

Xedapen gehigarria

Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileak RTVEk Nafarroan duen Lurralde Zentroan iza-

nen du kokapen fisikoa; izan ere, zentro hori Nafarroako Gobernuaren jabetzapekoa da.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileko Erregelamendua hiru hilabeteko epean aztertuko da foru lege honetan ezarritakora egokitzeko.

Bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Lege proposamena, alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 1999ko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako alternea lanbide duten pertsonen gizarte-eskubideak onartzeari buruzko Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen

hori 1999ko martxoaren 1eko 15 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 1999ko apirilaren 16an egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1999ko martxoaren 9ko

19 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

D saila:
HITZARMENAK

Sustapen Ministerioraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena, hurrengo hau egiteko: “Iruñerriko trenbide-sare berriaren azterlan informatiboa: trenbideak egiten duen ingurua kendu eta geltoki intermodal berria”

OSOKO BILKURAK BAIMENA EMANDA

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari hurrengo Hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: Sustapen Ministerioraren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmena, hurrengo hau egiteko: “Iruñerriko trenbide-sare berriaren azterlan informatiboa:

trenbideak egiten duen ingurua kendu eta geltoki intermodal berria”. Haren testua 1999ko apirilaren 9ko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguí

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mitch hurakanak sorturiko hondamendiak arintzeko GKE-ek prestatutako proiektuak balora ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 1999ko apirilaren 15ean egindako bileran, hurrengo erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mitch hurakanak sorturiko hondamendiak arintzeko GKE-ek prestatutako proiektuak balora ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mitch hurakanak sorturiko hondamendiak arintzeko GKE-ek prestatutako proiektuak balora ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du GKE-ek prestatutako proiektuak, hain zuzen ere Mitch huranak sorturiko hondamendia arintzearen ukituriko herrialdeak berreraikitzeke jarduketak proposatzen dituztenak, baloratu eta haiei erantzuna eman diezaien.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin hitz egiten has dadin, autopistako bidesaria liberalizatzeari buruzko plan bat egiteko

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Audenasarekin hitz egiten has dadin, autopistako bidesaria liberalizatzeari buruzko plan bat egiteko".

Biltzarrak, 1999ko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1999ko apirilaren 9ko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza finantzaketari buruzko laguntza eskaerei korritu nominalaren tasa txikiena aplikatu diezaien

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nekazaritza finantzaketari buruzko laguntza eskaerei korritu nominalaren tasa txikiena aplikatu diezaien".

Biltzarrak, 1999ko apirilaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1999ko apirilaren 9ko 28 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

Kontrapasarako 584 ehiza postu baimentzeari buruzko galdera

ATZERA BIDLITAKO GALDERA

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 1999ko apirilaren 16an egindako bileran, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak kontrapasarako 584 ehiza postu baimentzeari buruz aurkeztutako galdera atzera bidali duela jakitun dagoela adierazi zuen. Galdera hau 1999ko martxoaren 23ko 24 zk.ko Nafa-

rroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko apirilaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--